



*Bigarren Lehendakariodea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2021EKO IRAILAREN 21EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA GIPUZKOAKO HIRUGARREN ADINEKOEN ZENTRO PRIBATUETAN GIZARTEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA 2021EKO IRAILAREN 23 ETA 24RAKO DEITUTAKO GREBAN.

ELA sindikatuak greba-deialdia egin du 2021eko irailaren 23 eta 24rako «Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro pribatuetan (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko zentroak, tutoretzapeko apartamentuak eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, hitzarmen honen pean daudenak)». Bi egunetan, goizeko txanda hastean hasiko da greba, eta gaueko txanda bukatzean amaituko da.

Deialdia egin duen sindikatuaren arabera, grebaren helburua honako hau da: «*Gipuzkoako lurralderako egoitzen sektore-hitzarmena lortzea, eta, bertan, ELAk bere plataforma aldarrikatzailearen bidez Negoziazio Mahaian azaldu dituen edukiak aintzat har daitezela. Hitzarmenean honako gai hauek jaso beharko dira, besteak beste: soldata-igoera duinak, benetako lanaldiaren murrizketa, jaiegunen konpentsazioa, kontratazioak, eta abar. Halaber, negoziazio kolektiboaren erreformen ondoren, hitzarmena aplikatzeko berme aski eskaini beharko du.*»

Bestalde, LAB sindikatuak greba-deialdi bat egin du «Gipuzkoako adineko pertsonen egoitzen» sektorean, 2021eko irailaren 23 eta 24rako. Greba 00:00etatik 24:00etara izango da, baina gaueko ordutegia duten langileentzat 2021eko irailaren 23an 00:00ak baino lehen hasiko da.

Kasu horretan ere, deialdia egin duen sindikatuaren arabera, grebaren helburua da sektoreko LARES, MATIA 2020, ADEGI eta ACGG patronalek «*Gipuzkoako adineko pertsonen egoitzen sektorerako hitzarmen kolektibo bat negoziatu dezatela, eta, bertan, besteak beste, honako gai hauek jaso daitezela: Enpleguaren eta kontratazioaren gaineko hobekuntzak. Lanaldiaren, atsedendaldien, jaiegunen, oporren eta ohiko zerbitzuen gaineko hobekuntzak. Soldata-igoerak. Lizentzien, baimenen eta eszedentzien gaineko hobekuntzak. Laneko segurtasunaren eta osasunaren gaineko hobekuntzak eta sindikatzeko eskubideen gaineko hobekuntzak. Gizarte hobekuntzak. Etengabeko prestakuntzaren gaineko hobekuntzak.*»

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala

nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dazakenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Jarduera-eremuari dagokionez, Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro guztietan deitutako greba da. Deialdia bi sindikatuk deitu dute, ELA eta LABek, hots, sektore horretan gehiengoa dutenek. Denbora-eremuari erreparatzen badiogu, bi lanaldi jarraitu osori eragingo dio, 2021ko irailaren 23an eta 24ean.

2018.urteetik gaur egunera arte greba-deialdi jarraitu ugari egin diren sektorea da honakoa. 2018.urtean bi greba-deialdi egin ziren irailean, urrian, azaroan eta abenduan, eta 16 lanalditan izan zuten eragina. 2019.urtean ere hainbat deialdi egin ziren, eta, guztira, ehun eta hirurogei eta zazpi greba-egun batu ziren. 2020.urtean, sei greba-deialdi egin ziren: hiru urte hasieran egin ziren, zeinak modu jarraituan egin ziren, eta modu honetan, irailaren 11tik apirilaren 8ra, greba-deialdiak egon ziren inolako irtenbiderik gabe eta larogeita bederatzi lanaldi egun jarraitu eragin zien. Nolanahi ere, COVID-19ak

sortutako osasun nahiz larrialdi-soziala medio, ELA sindikatuak 2020ko martxoaren 13an greba-deialdia bertan behera utzi zuen; laugarren deialdi bat urrian egin zen, lanaldi bakarrari eragin ziona; bosgarren deialdi bat azaroan egin zen, eta nahiz eta zaintza esparruan egin zen, sektore honi ere eragin zion. 2020ko seigarren eta azken greba-deialdia elkarren segidako bi egunetan egin zen, abenduaren 10ean eta 11n. Azkenik, 2021ean, bi greba-deialdi egin dira, lehenbizikoa, otsailaren 25ean eta martxoaren 30ean eta bigarrena, maiatzaren 20an eta ekainaren 14ean.

Bestalde, gogoan hartu behar da ezen, grebaren ondorioz ukitutako eskubideak zaintzen ahalegintzeko asmoz, gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko modua aldatu zela 2019ko maiatzaren 20ko Aginduen bidez — zeinak urte hartako maiatzaren 21etik 25era bitarteko greba-deialdiaren aurrean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak arautzen baitzituen—. Izan ere, enpresek eta langileen ordezkariek kontrako interpretazioak egin zituzten sektore honetarako aurretik emandako aginduetako xedapen-zatian jasotako 2.1.1. klausularen nondik norakoan gainean. Hala, 2019ko apirilaren 26ko Aginduan zehaztu ziren, apirilaren 25ean aldeek Gipuzkoako Ordezkaritzan izandako bileran nondik norako horiek argitutakoan. Horrek agerian utzi zuen arazoak zeudela greba-eskubidea baliatzeko orduan. Horrenbestez, 2019ko maiatzaren 20ko Aginduan, bere horretan geratu ziren ezarritako gutxieneko zerbitzuen ehunekoak, horiek zenbatesteko modua aldatuta, eta eredu hori erabili zen gero 2019ko azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko aginduetan, baita 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko, martxoaren 6ko, urriaren 2ko, azaroaren 13ko eta abenduaren 4ko Aginduetan, bai eta 2021eko otsailaren 22ko eta maiatzaren 18ko Aginduetan ere. Agindu honek ere aipatutako kalkulu-metodoa errepikatzen du.

Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoen, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoen; horiei, euren behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren erdian egin dela, eta beraz, osasun- eta gobernu-agintariek hartutako neurri eta gomendioak ere kontuan hartu behar dira. Horrela, kontuan hartu behar da Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuan ezarritakoa SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurri buruzkoa eta Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduan ezarritakoa, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurri buruzko

Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduaren eranskina aldatzen duena, normaltasun berrirako trantsiziorako planaren 3. fasea gainditu eta gero.

Agindu horren eranskineko 4.3 puntuan, «Gizarte-zerbitzuetako zentroak, zerbitzuak eta establezimenduak» direlakoei buruz, esaten du zentroetako titularrek dagozkion antolamendu-, prebentzio- eta higiene-neurriak hartu behar dituztela langileei, erabiltzaileei eta bisitariari dagokienez, kutsatze-arriskuak prebenitzeko; eta adierazten du *"Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoari buruzkoan, jasotako gainerako zerbitzuak emateko, ziurtatu beharko da kutsatze-arriskuak prebenitzeko higiene-neurri egokiak hartzen direla"*.

Kontuan hartuta zentro horietako erabiltzaileek kalteberatasun berezia dutela SARS-Cov-2k eragindako infekzio larrien aurrean eta heriotza-tasa altua pairatzen ari direla, eta aintzat hartuta transmisioa areagotu egiten dela inguru itxiotan pertsonen hurbiltasunaren eta harreman estuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren eraginak bereziki latzak dira kolektibo honetan.

Hori guztia dela eta, Osasun Sailak hainbat dokumentu egin ditu, zeinak etengabe berrikusten baitira, eta, dokumentu horietan, SARS-CoV-2 koronabirusaren aurrean egoitza eta zentro soziosanitarioetan aplikatu beharreko neurriak eta gomendioak zehazten dira. Honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko protokoloa. Azken eguneratzea abuztuaren 23koa da.
- JT-01 Egoitza geriatrikoetako eta beste zentro soziosanitario batzuetako garbiketa- eta desinfekzio-neurriak, 2020ko apirilaren 1ekoa.

Adineko pertsonen egoitza-zentroen eta eguneko zentroen kasuan, osasun-agintariek emandako protokoloen eta arauen jarraipena egitean kontingentzia-planak aplikatzeko, ezinbestekoak dira neurri batzuk, tartean nabarmentzekoak: egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako arkitektura- eta langile-sektORIZAZIOAK, egoitza-zentroetako erabiltzaileak tratamendu-kohorteetan sailkatzea, eta langileentzako politika bat ezartzea, zeinak berekin ekarriko duen norbera babesteko ekipamenduen erabilera estentsiboa izatea (inplikazio guztiekin) eta langileak beren kohortera mugatuta egotea.

Bestalde, eta SARS-CoV-2ren infekzioa prebenitu eta kontrolatzeko neurri horiek eta beste neurri batzuk indarrean mantendu beharri dagokionez, komeni da kontuan hartzea Zentro Soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko Protokoloa. Protokolo horren bertsio eguneratua, 2021eko abuztuaren 23koa, COVID-19 txertaketa-kanpainari dagokionez, egoitzetan eta desgaitasuna duten adinekoentzako eta egunekoentzako zentroentzako, ondorengo adierazten du:

"COVID-19 txertaketa-kanpainak lehentasuna eman zien adinekoen eta desgaitasuna zuten pertsonen egoitza-zentroeiei eta eguneko-zentroeiei, eta ikusi da nabarmen murriztu dela gaixotasunaren intzidentzia, eta, horrekin batera, kasu larriak eta heriotzak, isolamenduak eta berrogeialdiak.

Egungo ebidentziak COVID-19ren aurkako txertoak infekzio sintomatiko eta asintomatikoa, gaixotasun arina, moderatua eta larria eta heriotza-tasa murrizteko eraginkorrak direla erakusten du. Jakina da txertoek eragindako immunitateak ez duela erabat eragozten txertoa jaso duen subjektuaren goiko arnasbideetako mukosan birusa erreplikatzeko, eta txertoaren eraginkortasuna ez da %100era iristen. Gainera, erantzun immunea murriztuagoa da hainbat populazio-taldetan (adineko pertsonak, immunodeprimituak), eta aldaera berrien zirkulazioagatik baldintzatuta egon daiteke.

Txertatutako pertsonetan birusa detektatzea posiblea den arren, orokorrean pertsona hauek ez dute sintomarik izaten. Eskuragarri dauden azterlanen arabera, txertatutako kasuek birusa beste pertsona batzuei transmititzeko aukera oso baxua izango litzateke, baina posible izan liteke.

Horren ondorioz, egungo egoera epidemiologikoa eta txertaketa-estaldura kontutan izanda, bai egoiliarrek bai langileek orain arte indarrean zeuden prebentzio eta kontrol gomendio guztiei jarraitu behar diete, beren burua eta gainerakoak SARS-cov-2 infekziotik babesteko, haien txertaketa-egoera edozein dela ere”.

Aurreko guztia kontuan izanik, Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro pribatuen eta adineko pertsonen egoitzen sektoreko greba-deialdiari dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiela egoitza-arretan, bat etorrita honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; hala, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan,

proporzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauetara jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza-harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diona. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Araudiak honako

zentro-mota hauek bereizten ditu: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarrizko jarduera batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolahi ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarrizko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integral eta integraturako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonari ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasan-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, zirkunstantziaren arabera, higie pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendekotasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

Egungo testuinguruan, osasun-agintariak egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan egin beharreko gomendioen artean sartu dituzte hainbat betebeharrak, lehendik egiten ziren funtsezko zerbitzuen artean sartu behar direnak. Zehazki, antolaketa-eredu berrietatik datozenei buruz ari gara, tartean nabarmentzekoak sektORIZAZIOA eta LANGILEEN TALDEEN ARABERAKO BANAKETA. Gainera, erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzien kontrolarekin eta taldeko edo/eta banakako jarduerak egiteko moduarekin lotutako zeregin berriak sartu dira, bai eta egoitzen egoera klinikoaren gaineko kontrola ere (tenperatura kontrolatzea, sintomak behatzea, higie areagotzea eta abar).

Pandemia-egoera dela eta, eta txertaketa-kanpaina oso aurreratuta egon arren, osasun-gomendioak oraindik ere indarrean daude, eta, aurretik azaldu dugun bezala, gaur egun ezinezkoa da horiek betetzea, %100etik beherako zuzeneko arreta-portzentajearekin; horrela eginez gero, zerbitzu horien erabiltzaileak kutsatzeko arrisku-egoeran jarriko liratekelako, azken hilabeteotan ikusi ditugun ondorio lazgarriekin.

Hala gomendatu du, berariaz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, Gipuzkoako hirugarren adinekoentzako zentro pribatuetan 2020ko urriaren 6rako deitutako grebaren harira emandako txostenean, 2021eko otsailaren 15eko txostenean, Gipuzkoako hirugarren adinekoentzako zentro eta egoitzetan 2021eko otsailaren 25erako eta martxoaren 30erako deitutako grebaren harira emandakoan, bai eta 2021eko maiatzaren 5eko txostenean, Arabako Egoitza eta Etxebizitza komunitarioen sektorean 2021eko maiatzaren 12, 19 eta 26rako deitutako grebaren harira emandakoan ere. Ildo beretik doa 2021eko irailaren 14an hizpide dugun deialdia dela eta egindako txosten berrienean. Txosten horretan, Zentro Soziosanitarioetan Covid-19tik babesteko Protokoloan ezarritakoari lotzen zaio eta ondorengo ondorioztatzen du:

"SARS-CoV-2 Koronavirusaren ondoriozko osasun-pandemia batean murgilduta gaude Euskadin. Gaur egun, agerraldien kutsatze komunitarioa eta Erkidegoko transmisio-adierazleen bilakaera egonkorra ditu ezaugarri.

European Centre for Disease and Prevention and Control (ECDC) erakundeak Europar Batasuneko herrialdeak sailkatzeko eta arrisku handitzat hartzeko ezarritako mugari dagokionez, 100.000 biztanleko 60 kasu berriren intzidentzia metatuta 14 egunen buruan, Euskadik oraindik ere tasa hiru aldiz handiagoa du.

Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak 2021eko maiatzaren 18ko Aginduan alegazioak eskatzeko idatzian adierazten den bezala, osasun publikoaren ikuspegitik ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuen estimazio arrazoitua egiten da.

Gogoeta horietan oinarrituta, maiatzaren 18ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuen zerrenda bera proposatzen da, argumentazio berean oinarritua".

6) Baina, arreta zuzeneko zerbitzuez gain, zeharka horiei lotutako beste zerbitzu batzuk ere ematen dira, neurri txikiagoan bada ere (sukaldea, garbiketa, arropagarbategia...); badira, halaber, egoitzetako instalazio eta zerbitzuen koordinazioan, mantenimenduan eta segurtasunean laguntzen duten zerbitzuak ere. Aurreko aginduetan, zerbitzu hauen intentsitatea eta horiek egiteko langile-kopurua baxuagoak izan dira arreta zuzenekoak baino.

Hala ere, lehen ere adierazi dugun bezala, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako egoeran, osasun-agintaritzek hainbat neurri eta gomendio onartu eta argitaratu dituzte, zeharkako zerbitzuekin ere lotuta, besteak beste garbiketarekin eta arropagarbitegiarekin. Nahiz eta aurreko deialdietan zerbitzuon intentsitatea eta langile-kopurua baxuagoak izan diren, egungo egoera kontuan hartuta eta osasun-arloko neurriak eta gomendioak ikusirik, zeharkako zerbitzu horiek nabarmen areagotu behar dira.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu behar da, osasun-agintarien neurrietan zehaztutako intentsitatea eta maiztasuna bete dadin; hau da, bereziki da nabarmentzekoa garbiketa-zerbitzua, eta zehazki, zentro guztiaren desinfekzioa. Hala, maiztasuna areagotu egingo da: txanda bakoitzean gutxienez garbiketa bat, erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan garbiketa sakona egiteko, bai eta kontaktu gehien duten gainazaletan ere, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar.

Harrera eta atezaintzako zerbitzua ere zeharkako zerbitzuen barruan dago, eta zerbitzu hori ere indartu behar da. Izan ere, zentroetara egiten diren bisiten gainean ere egin dituzte gomendioak osasun-agintariek: bisita horiek mugatu dira, eta bertaratzen diren pertsonen datuak jaso behar dira; gainera, tenperatura hartu behar zaie bisitariei. Bestalde, zerbitzu honetan egin beharreko zereginen kopuruari eutsi zaio, 2020ko martxoaren 6ko Aginduan areagotu baitziren, eta 2020ko urriaren 2ko, azaroaren 13ko, abenduaren 4ko eta 2021ko otsailaren 22ko eta maiatzaren 18ko Aginduetan mantendu dira.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginen dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higie pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroyen konfigurazio berezia ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonen arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna. Eremu horretan, halaber, salbuespenezko egoeraren ondorioz, gutxienez ezarri ohi diren zerbitzuak indartu egin behar dira, osasun-agintaritzen gomendioak betetzeko. Kasu honetan, erabiltzaileen egoera klinikoaren kontrol handiagoa egin beharra dago, eta osasun-zerbitzuen erabilera kontrolatua egiteko gomendio orokorrak aplikatu behar dira.

Ondorioz, langile horiek egin ohi dituzten lanak areagotu egin behar dira, osasun-agintaritzek egiten dituzten gomendioak betetzeko.

10) Elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz-mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuak behar bezalako higiezia zaintzeko zerbitzuak dira, eta zeharkakoak izan arren, beharrezkoak dira. Bada, arlo honetan, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarritzko zereginak bete beharko dira, intentsitate baxuagoa ezarri arren.

11) Arropa-garbitegiaren zerbitzuan, halakorik duten zentroetan, mihiseria guztia eta zerbitzuari dagozkion gainerako lanabesak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbituko da. Zerbitzu hori indartu eta handitu egin behar da, 2020ko martxoaren 6ko Aginduan egin zen bezala eta sektore honen ondorengo Aginduetan: 2021eko urriaren 2koa, 2020ko abenduaren 4koa eta 2021eko otsailaren 22koa. Izan ere, koronabirusak eragindako egungo epidemia kontrolatzeko osasun-agintariek zehazten duten bezala, arreta berezia jarri behar da arroparen garbiketan. Ondorioz, arropa-garbitegiaren zerbitzuak eman behar dituzten langileak % 90era arte areagotu behar dira, eta, hala, osasun-agintaritzek gomendatu duten bezala egin ahalko da zerbitzua.

12) Mantentze-lanetako zerbitzuak ezinbestekoak ez, baina oso lagungarriak izan badira greba honetan gutxienekotzat hartutako gainerako zerbitzu eta instalazioen funtzionamendua egokia izan dadin. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragin dezaketen ezustekoei erantzuna eman behar zaie, komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak bermatzeko.

13) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten eta greba egintzat har dadin.

14) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoan ezartzen dira — langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta— gizarte-baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak (Dekretu hori uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu bazen ere, aplikagarria da oraindik ere, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera). Ratio horiek saihestu daitezke greba-

egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

15) Aurreko 6. puntuan zehazten diren zerbitzu horietarako (sukaldaritza, garbiketa, arropa-garbitegia eta harrera-atezaindegia) zuzeneko arretaren eta zeharkako arretaren ezinbestekotasunaren irizpide bera aplikatu behar zaie, baita ere laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroak ere, zeinetan, oro har, langile gutxiago baitaude egoitzetan baino, antzeko kasuan daude; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, hain zuzen, langileei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, “greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarrizten da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada”.

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraio bideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritzak honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko Epaiak, zeina 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdirako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduarekin lotuta eman baitzen, eguneko zentroek ematen duten zerbitzuan sartzea bermatzen duelako garraio mota hori ezinbestekoa zela onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapen hori arrazoitu beharra zegoela «zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik», eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealtate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela-eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraio biderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

16) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien gutzirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat etorriz, eta guztia laburbiltze aldera, 2021eko maiatzaren 20 eta ekainaren 14 egunetarako deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du «arreta zuzeneko zerbitzuak» emateko eta oinarrizko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Puntu honetan berriz ere gogorarazi behar da deialdi hau baino lehen beste batzuk ere egon direla, zeintzuen arabera ezarri baitira 2018ko irailaren 26ko, urriaren 19ko, azaroaren 22ko eta abenduaren 20ko aginduak; 2019ko otsailaren 18ko, martxoaren 28ko, apirilaren 26ko, maiatzaren 20ko, ekainaren 13ko, irailaren 16ko, azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko aginduak; eta 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko, martxoaren 6ko, urriaren 6ko, azaroaren 13ko eta abenduaren 4ko aginduak eta, azkenik, 2021eko otsailaren 22ko eta maiatzaren 18ko Aginduak. Horietako bigarrenaren aurka (2018ko urriaren 19koa), ELA sindikatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, pertsonen oinarrizko eskubideen jurisdikzio-babeseko prozedura bereziko izapideen zioz bideratua (873/2018 jurisdikzio-babesa). Prozedura hartan, kautela-neurriak eskatu ziren (108/2018 kautela-neurriak), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalak 2018ko azaroaren 6an emandako autoaren bidez ezetsi ziren. 2019ko azaroaren 22ko epaiaren bidez, ezetsi egin zen errekurtsoa.

ELA eta LAB sindikatuak 1005/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten Eusko Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2020ko urriaren 2ko Aginduaren aurka, zeinaren bidez bermatzen baitzen Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro pribatuen eta Gipuzkoako adinekoen egoitzen sektorean ematen zen funtsezko zerbitzua ematen jarraitzea, 2020ko urriaren 6rako deitutako greban; eta Eusko Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko urriaren 2ko Aginduaren aurka, zeinaren bidez bermatzen baitzen Gipuzkoako hirugarren adineko hemeretzi zentro pribatuetan gizartearentzako funtsezko zerbitzua ematen jarraitzea, 2021eko urriaren 6rako deitutako greban. Errekurtso hori ezetsi egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko apirilaren 20an emandako 148/2021 epaiak, eta errekurritutako Aginduak berretsi zituen.

Halaber, Arabako egoitza eta etxebizitza komunitario pribatuen sektorean, zeinen funtzio-eremua deialdi honen oso antzekoa dena, besteak beste, 2020ko urriaren 6ko Agindua eman zen. Agindu horren aurka, 2020ko urriaren 7rako eta azaroaren 11 eta 25erako greba-deialdi bati buruzkoa, 1013/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen ELA sindikatuak. Errekurtso hori ezetsi egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2021eko otsailaren 24an emandako 82/2021 epaiak, errekurritutako Agindua berretsi baitzuen.

Azkenik, eta berrikiago, nabarmentzekoa da 316/21 epaia, 2021eko irailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salarena, ELA sindikatuak Eusko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko otsailaren 26ko Aginduaren aurka jarritako 259/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebazten duena. Agindu horren bidez, ondorengo bermatzen zen: Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro pribatuetan komunitateari ematen zaion funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola 2021eko otsailaren 25erako eta martxoaren 30erako deitutako greban. Epaia errekurrtsoa ezetsi eta emandako agindua berretsi du.

Inguruabar horiek guztiak eta jurisdikzio-babeseko baliabideetan ezarritako epaiak (besteak beste 1288/2017 eta 873/2018) berariaz baloratu ziren, aurreko deialdietako gutxieneko zerbitzuak ezartzeko orduan. Aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuta, honako hau adierazten du: "Kontuan hartuta sektorearen berezitasuna nahiz zerbitzuen eta egoitzen hartzailen berezitasuna, justifikatuta dago gutxieneko zerbitzuak finkatzeko orduan prebentzio-irizpideen arabera jardutea, Bizkaiko sektorearen greban Salaren hainbat aurrekaritan baloratu zirenak bezalako egoerak sor ez daitezten. Egoera horiei buruzko epai guztien lekuko, Jurisdikzio Babeseko 1288/2017 Errekurtsoan ezarritakoa aipatzen dugu".

Kasu honetan, nahiz eta grebak bi lanaldi jarraituri ez eragin, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako epidemiaren egungo egoerak bereziki ukitu duen sektore bati buruz ari gara.

Horregatik guztiagatik, 2020ko urriaren 2ko eta azaroaren 13ko aginduetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak mantentzea erabaki da. Agindu horiek handitu egin zituzten, behar-beharrezkoak ziren heinean, aurretik ezarritako gutxieneko zerbitzuak, oraingo kontingentzia epidemikora egokitzeko eta erabiltzaileen eta langileen arriskua minimizatzen saiatzeko, eta aztergai dugun honen aurreko 2020ko azaroaren 13ko eta abenduaren 4ko Aginduan eta 2021ko otsailaren 22ko eta maiatzaren 18ko Aginduetan ere mantendu ziren.

Gai honetan «gobernalaritzari» eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak –funtsezko zerbitzu jakin batzuk mantentze aldera, oinarritzako beste eskubide batzuk betetzera bideratuta baitaude–, Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak baino ezin izango dituela ezarri.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatuak egikaritzea dagokio, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Enpleguko Bigarren Lehendakariorde eta Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- 1. Gipuzkoako hirugarren adinekoen zentro pribatuen (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko zentroak, tutoretzapeko apartamentuak, eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, hitzarmen honen aplikazio-eremuan sartzen direnak) eta Gipuzkoako adineko pertsonen egoitzen sektorean 2021eko irailaren 23 eta 24rako, lanaldi osoan, deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil dezakete, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatzen diren heinean, zerbitzu horiek gutxieneko zerbitzutzat jo behar baitira, egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen dituztelako haien beharren arabera. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrek ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Era berean, berariaz bermatuko da honako hauetan ezarritako gomendioak beteko direla: zentro soziosanitarioetan COVID-19tik babesteko Protokoloa, eta egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitu eta desinfektatzeko Jarraibide Teknikoa -01 (JT-01) —Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eginak eta I. eta II. eranskin gisa sartu direnak Agindura—, bai eta egoitza-zentro bakoitzak aurreko horiek betetzeko garatu dituen Kontingentzia-Planak ere. Era berean, arreta zuzeneko oinarrizko zerbitzuak ezarri dira gutxieneko modura.

2. Jarraian aipatzen diren langileek ondoren zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

2.1. Oro har:

2.1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

a) Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuak bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu simple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehentasuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higiene pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, oinarritzko higiene pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian, erantsitako agirian jasotako gomendioak betez.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun-gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera komunean eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaletan, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

2.1.7. Arropa-garbitegiaren zerbitzuan lan hauek egingo dira: egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta arropa zapala garbitu eta lehortzea (mairidireak, burkoak eta eskuoihalak).

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen % 60 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, gerokultoreen edo horien parekoen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen % 100 egongo da, egin ohi dituzten zereginen % 100 egiteko eta osasun-agintaritzek egin dituzten prebentzio-gomendioak betetzeko, 1.1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen % 100ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira.

2.8. Arropa-garbitegiko langileak:

Normalean lan horretarako betetzen den lanaldiaren % 90ean emango da zerbitzua, agindu honen 2.1.7. apartatuan azaldutako zereginak egiteko.

2.9. Mantentze-lanetako langileak:

Jaiegunetan egoten den langile-kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

2.10. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da txanda bakoitzean, eta berau arduratuko da bisitak erregistratzeaz eta bisitarien tenperatura hartzeaz. Kontrol horretan sartuko dira bai erabiltzaileak, bai bisitak, osasun-gomendioetan ezarritako mugak bete daitezten.

BIGARRENA. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.



HIRUGARRENA.- 1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari norik bete behar dituen eginkizun horiek.

LAUGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

BOSGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

SEIGARRENA.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

ZAZPIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**